

2

Sardina-latako sirena



emeki: geldiro.

geza: gatzik gabea.

doministiku: "atxis".

aintzira: lakua.

Maier andrea dendatik itzuli eta erosketak ateratzen hasi zen. Jennyk, sei urteko alabak, adi-adi begiratzen zion.

Bat-batean Jennyk esan zuen:

- *Sardina- lata horren barruan zarata entzuten da.*

- *Bai zera!/- esan zuen amak- Sardina latan sardinak baino ez daude, eta denak hilda. Zabaltu egingo dugu.*

Eta Maier andrea lata kontu handiz zabaltzen hasi zen. Baina, lata erdi zabalik egon zenean, zerbait ikusi zuten barruan: sirena zoragarri bat zen!

Jennyk sirena sardina-latatik atera zuen, emeki-emeki xaboiz garbitu, ilea lehortu eta orraztu egin zuen.

Max, seme zaharrena, futbolean jolastetik itzuli zen etxera.

- *Aibalaaaaa!/-* oihu egin zuen Maxek sirena ikusi zuenean.

Gero, bere gelara eraman nahi izan zuen , argazkiak egiteko. Baina Maier andrea haserretu egin zen. Sirena esku artetik kendu zion eta erratzen armairuan sartu zuen.

Geroxeago, Maier jauna lanetik etorri zenean, gertatu zenaren berri eman zion.

Maier jaunak kontu handiz ireki zuen erratzen armairua eta han aurkitu zuen sirena.

-Benetako sirena da!- esan zuen.

Gaua bainuontzian pasatu zuen sirenak, plisti-plastaka.

Hurrengo egunean, Maier jaunak sirena itsasora eramatea erabaki zuen. Goizean goiz atera ziren autoan. Maier jauna txiza egiteko, aintzira baten ondoan gelditu egin zenean, sirenak autotik uretara salto egin zuen.

- Aintzirako ura geza da. Ondo egingo ote dio ur gezak sirenari? - esan zuen Maier jaunak pentsakor.

Eta Maier jauna etxera bueltatu zen sirenarik gabe.

Hurrengo udan familia osoa aintzirara joan zen oporretan. Baina sirena ez zen agertu.

Behin, doministiku-hotsa entzun zuten eta, Jennyk arrain handi baten isatsa ikusi zuela esan zuen.

Sirena izango zen. Nor bestela?



Irakurgaia lantzen**1-** Galdereei erantzun.

- NON AGERTU zen sirena?
—
- NON PASA zuen GAUA sirenak?
—
- NON BIZI da orain sirena?
—

2- Deskribatu irudia.

Nolakoa du ilea?

Sirenak ile

Nolakoa da sirenaren aurpegia?

Eta gorputza?

3- Idatzi nork egin zuen ekintza bakoitza.

Maier andrea

Maier jauna

Jenny

Max

- Sardina-lata irekizuen. _____
- Sirena garbitu, lehortu eta orraztu zuen. _____
- Sirena erratzen armairuan sartu zuen. _____
- Sirenari argazkiak atera nahi zizkion. _____
- Sirena autoan sartu zuen. _____

4- Kontatu zure hitzekin sirenaren ipuina.

*Behin batean, maiertarrek sirena bat aurkitu zuten
sardina-lata baten barruan.*

HITZEN HABIA

5- Zein ari da doministiku egiten? Markatu X batekin .



A	
B	
C	

6- Zein da esapidearen esanahia? Markatu X batekin .

Maier Andrea **sutan jarri** zen.

☐

Maier andrea gorri- gorri jarri zen, lotsatuta.

☐

Maier Andrea haserretu egin zen.

7- Idatzi alboan esanahi bera duten hitzak.

buztana

hotsa

jauzi egin



- Sardina lataren barruan **zarata** _____ entzun zen.
- Sirenak uretara **salto egin** _____ zuen.
- Sirenaren **isatsa** _____ ikusi zuten uretan.

Hizkuntzaren erabilera. IZENAK

IZENAK

IZEN BEREZIAK

Pertsona, animalia eta lekuen izenak IZEN BEREZIAK dira.



A B C D E F G H I J
K L L L M N Ñ O P Q
R S T U V W X Y Z

Adibidez: Ibon, Maider, Idoia, Ane, Volvo, Zuri,
Tobi, Bilbo, Usansolo, Galdakao...

IZEN ARRUNTAK

Letra xehez hasten dira.

a b c d e f g h i j k l
m n o p q r s t
u v w x y z

Adibidez: mahaia, katua,
liburua, kalea, neska, txakurra...

1- Begiratu mapa eta kopiatu letra **LARRIZ** hasten diren hitzak.



2- Izen bereziak ala arruntak dira? Sailkatu.

Ibon	mahaia	Bilbo	autoa	Batzelona
liburua	txakurra	katua	Fifi	Tobi
gozokia	Frantzia	mutila	Ane	Leire
Uxue	Bambi	Mickey	lorea	Burgos

IZEN BEREZIAK	IZEN ARRUNTAK

2- Orain zuk asmatu: 4 izen berezi eta beste 4 izen arrunta.

IZEN BEREZIAK	IZEN ARRUNTAK
▪ ▪ ▪ ▪	▪ ▪ ▪ ▪

3- Bilatu testuan pertsonen, animalien eta lekuen izenak.



Hankoker pirataren ibilerak

Hankoker pirata Karibe itsasoko pirata gaiztoena da.
 Bere lagun bakarra Hitzontzi loroa da.
 Gaiztakeriak egin eta ihes egiten du beti.
 Gaiztakeriak egiten aspertzen denean, Bizargorri
 piratarekin elkartzen da elkarri abenturak kontatzeko.

PERTSON

A

ANIMALI

A

LEKUA

4- Izenak idatzi.

Kutxan



ETA



DAUDE.



itsASOAN aurkitu genuen,



BATEN BARRUAN.

ZENBAT



DAUDE itsASOAN?

5- Osatu esaldiak.

- Ni bizi naiz.
- Nire osabak du izena.
- Zenbat dituzu?
- Dendan erosi nituen.
- Igandean joango naiz.